


M **KONGOKO ERREPUBLIKA DEMOKRATIKOA.** Zimbawek, Belgikak, Estatu Batuek, Erresuma Batuak eta bake negoziazioen buru botswanarrak hiltzat jo dute Laurent Kabila presidentea. Gobernuak jakinarazi duenez, etxeratze agindua murriztu dute.

Kinshasak Kabilaren semea izendatu du Estatuaren buru «behin-behingo»

Gobernuak ez du onartu ofizialki presidentearen heriotza, baina Defentsa ministroak aitortu du hil dela

SOSLAIA



ADIL BRADLOW / AP

Laurent Kabila presidentea 1997an, kargua hartu zuen urtean.

LAURENT-DESIRE KABILA KONGOKO ERREPUBLIKA DEMOKRATIKOKO PRESIDENTEA

Botereak ezabatutako esperantza

Laurent Desire Kabilak 30 urte pasa zituen Mobutu Sese Seko Kongoko Errepublika Demokratikoko diktadorea kargutik kendu eta boterea lortzeko bere ametsaren bila borrokan. Bide luze horretan bere idealak alde batera utzi eta iraultzaile izatetik boterearen atzaparretan usteltzera igaro izana leporatu diote askok Kabilari. Diktadorea bota eta hark utzitako ustelkeria eta nepotismo bide beretik jarraitu zuen, lehenago txalotu zuten kongotarren esperantzak zapuztuta.

1939an jaio zen Kabila, garai horretan Belgikaren esku zegoen Kongo Belgiarreko Katanga eskualdean. Gaztea zenetik, Patrice Lumumba lehen ministro independentistaren jarraitzaileekin bat egin zuen, eta 1964an, 23 urte zituela, Mobutuk zapaldu zuen iraultza marxistan par-

te hartu zuen. Porrotaren ostean mendian ezkutatu zen, eta Herritarren Alderdi Iraultzaileak sortuta matxinadari berrekin zion. Che Guevara gerrillariaren babesa ere lortu zuen, baina hark alde batera utzi zuen Kabilarekin desengainatuta zegoelako.

60 eta 90eko hamarkaden artean Kabilari buruz ezer gutxi da jakina. Berak epe horretan «sasien artean» bizi izan zela adierazi zuen, baina hamarkada horietan diamanteen eta urrearen trafikoarekin aberastu izana egotzi diote askok. 1997an, Ugandaren eta Ruandako tutsien babesarekin matxinatu eta boterea lortu bezain laster, alderdi politikoak debekatu eta botere guztiak bere esku hartu zituen. 1999an hauteskundeak egingo zituela agindu zuen arren, orduan ere ez zuen bere hitza bete.

Erredakzioa | DONOSTIA

Joseph Kabila, Laurent-Desire Kabila presidentearen semea, izendatu zuten atzo Kongoko Errepublika Demokratikoko «behin-behingo» burua. Gobernuaren arabera, presidentea oraindik bizirik zegoen osasun artatzea jasotzen, eta presidentziako bozeramaile Dominique Sakombik nabarmendu zuenez, semeak ordezkaturako du karguan Kabila «sendatu bitartean». Hala ere, artean, presidentearen egoerari buruzko informazio kontraesankorrak hedatu ziren, eta Gobernuko Defentsa ministro Godefroid Tchamlessok aitortu zuen Laurent Kabila zendu zela.

Zimbaweko Gobernuak —Kabilaren aliatu nagusia gerrillarien aurkako borrokan— iragarri zuen presidentea Zimbawera bidean osasun artatzea jasotzera zihoalarik hil zela hegazkin batean. Horrez gain, Belgikak, Erresuma Batuak, Estatu Batuek, eta Kongoko Errepublika Demokratikoko bake negoziatzaileen taldeko buru Ketumile Masire botswanarrak esan zuten ez zutela uste Laurent Kabilak bizirik jarraitzen zuenik. Frantziako Atzerri ministro Hubert Vedrinen hitzetan, aldiz, ezin zen Kabilaren heriotza baieztatu.

Kinshasako telebista publikoak Joseph Kabilaren irudiak eman zituen aita eta semea hilda zeudela zioten zurrumurruak isilarazteko. Atzo Gobernuaren bilera berezi baten ondoren Joseph Kabila militar bati eskua ematen ari zitzaionekoak ziren irudiak, antza. Gainera, telebistak gezurtatu egin zuen presidentea hilda zegoela.

Bitartean, segurtasun neurriak indartu egin zituzten errepublikan, eta presidentziako eledunak esan zuenez, aireportuak berriro martxan jartzeaz gain etxeratze agindua malgutu zuten.

Armadan egonezina pizten ari zenean gertatu zen herenegun Laurent Kabilaren aurkako tiroketa, ustez bere bizkartzain

Kongoko gatazka

★ Borroka guneak

▨ Matxinoek kontrolpean duten eremua



batek egindakoa. Ordu arte huts egin zuten Gobernuak gerrillarekin hitzartutako sueten saio ugariak, eta 1998tik Kongoko Errepublika Demokratikoaren erdia baino ez zuen kontrolpean Kabilak —beste erdia gerrillarien esku dago—.

Adiskidetzeko deia Europak

EB Europako Batasuneko hamabost estatu kideek arbuia egin zuten atzo Kabilaren aurkako atentatua, eta Kongoko Errepublika Demokratikoko herritarrei eskatu zieten lasai egoteaz gain adiskidetzen ahalgintzeko. Lusakako akordioak bete, NBE Nazio Batuen Erakundeko Segurtasun Kontseiluaren erabakiak errespetatu eta gatazka konpontzeko elkarlanean aritzeko dei egin zuen Batasunak. EBko Atzerri ministroek astelehenero bileran aztertuko dute Kongoko Errepublikaren egoera.

Louis Michel Belgikako Atzerri ministroak Europako Batasunarekin, NBEko idazkari nagusi Kofi Annanekin eta beste estatu batzuetako buruekin bildu ondoren esan zuenez, une egokia izan daiteke NBERen Segurtasun Kontseilua elkartu eta nazioarteko komunitateak inplikazio handiagoa izan dezan konponbideak aurkitzeko.

Belgikak bi tropa bidaliko ditu Kinshasara —bat atzo joan zen Gabonera—, bere enbaxadaren segurtasuna indartzeko.